## (Bizikidetza Arauen laburpena)

### 73. artikulua. Osasun-arreta egoerak

1. Eskola-egunean zehar ikasle batek bat-bateko erako osasun-arreta behar izango balu larrialdi medikoa izan gabe, horrela jokatu beharko da:

a) Ikasleak, DBHko 1. edo 2. mailakoa bada, arreta medikoa Osakidetzaren zerbitzuetan jaso behar du zuzenean, hots, osasun-zentro edo ospitale publiko batean.

b) Ikaslea goiko mailakoa bada, estaldura nahitaezko eskola-aseguruari dagokio. Aipatutako eskola-aseguruari dagokion dokumentazioaren tramitazioa institutuaren idazkaritzan egingo da. Dokumentazio hau aurkeztea ezinbesteko baldintza da arreta medikoa jaso ahal izateko. Kasu hauetan, osasun-arreta itundutako zentroetan (S. Juan de Dios, etab.) egingo da lehentasunez.

c) Ikaslea adin gabekoa bada, zaintza-irakasleren batek osasun-arreta egoeran dagoen ikaslearen familia abisatuko du. Aurkitzen bada, hura izango da ikaslea zentro mediko egokira eramateko kargua hartuko duena.

d) Hau posiblea ez bada, zaintza-irakasleren bat ikasleaz arduratuko da familiaren arreta egokia ziurtatu ahal izan arte.

e) Familiarekin harremanetan jarri ezin izatekotan edo familia institutura hurbildu ezin bada, zaintza-irakasleren batek dagokion osasun zentrora lagunduko du eta, behar izanez gero, taxiz eramango du.

f) Laguntzen duen zaintza-irakaslea ikaslearen ondoan mantenduko da senide heldu bat ikasleaz arduratu arte. Familia arduratu ezin izango bazen irakaslea berriro institutura itzuliko da ikaslearekin.

g) Osasun-arreta behar duen ikasle adindunei lagunduta izango da pertsonalki zirkunstantziek eskatzen badute edo berak eskatzen badu, osasun-zentrora joateko garraioa, behar izatekotan, erraztuz.

---

## (Extracto de las Normas de Convivencia)

### Artículo 73. Situaciones de atención sanitaria

1. Si en algún momento de la jornada escolar un alumno o alumna necesitara atención sanitaria de forma repentina sin ser una urgencia médica, se procederá de la siguiente forma:

a) Si el alumno o alumna es de 1° ó 2° curso de ESO, la atención médica debe realizarse directamente en los servicios de Osakidetza, es decir, centros de salud u hospitales públicos.

b) Si el alumno o alumna es de cursos superiores, la cobertura corresponde al seguro escolar obligatorio. La tramitación de la documentación correspondiente al citado seguro escolar se realizará en la secretaría del instituto. La presentación de esta documentación es requisito imprescindible para la atención sanitaria. En estos casos, la atención sanitaria se realizará preferentemente en los centros concertados (S. Juan de Dios, etc.)

c) Si el alumno o alumna es menor de edad uno de los profesores o profesoras de guardia avisará a la familia del alumno o alumna en situación de atención sanitaria para que, si es posible, ella se haga cargo de su adecuada atención.

d) Si esto no es posible, uno de los profesores o profesoras de guardia se hará cargo del alumno o alumna hasta que se pueda asegurar la adecuada atención de la familia.

e) En caso de no poder contactar con la familia o de que la familia no pueda acercarse al instituto, uno de los profesores o profesoras de guardia le acompañará personalmente y, en caso de ser necesario, en taxi, al centro sanitario que corresponda.

f) El profesor o profesora de guardia acompañante se mantendrá junto al alumno o alumna hasta que un familiar adulto se responsabilice de él. En caso de que la familia no pudiera hacerse cargo, el profesor o profesora regresará de nuevo al instituto con el alumno/a.

g) El alumnado accidentado mayor de edad será acompañado personalmente si las circunstancias lo requieren o si lo solicita, facilitándole, en todo caso, el transporte al centro sanitario.